

ZABORRAK BILDU ETA TRATATZEKO ZERBITZUA

1. -ETXEBIZITZETAKO ZABORRAK:	<u>Euro</u>
Etxebizitzak	139,70
Garaje kolektiboa	
50 plaza gehienez	506,44
50 plazatik 100era	759,66
100etik gora	1125,15
Garaje bakarrekoea eta lokal itxiak	23,76
2.- KOMERTZIOETAKO ZABORRA:	
a) Sukalde zerbitzua duten tabernak (pintxo, bokadilo eta plater konbinatuak)	686,07
b) Jatetxeak:	792,09
c) Supermerkatuak:	573,80
d) Supermerkatu handiak:	1.808,73
e) Fruitategiak:	573,80
f) Hondakin organikoa sortzen duten elikadura arloko bestelako dendak	573,80
g) Harategiak eta arraindegia (baimendutako kudeatzaileetara hondakinak eramaten dituztenak)	367,97
h) Elkarrekin gastronomikoak:	686,07
i) Sukalde zerbitzua ez duten tabernak	573,80
j) Hondakin organikoak sortzen ez dituzten elikadura arloko dendak	367,97
k) Bestelako dendak, biltegiak	367,97
l) Zerbitzuak	336,80
m) Biltegi handiak eta kafetegia, taberna edo jatetxe zerbitzua duten gasolindegia	1.808,73

3.- INDUSTRIETAKO ZABORRAK

Tailer eta industrien kasuan, tarifek hondakinen sorrera hartuko dute kontuan, eta Sasieta Mankomunitateak erabiltzaile bakoitzaren eskura jarritako errefusaren edukiontzien kopuruaren eta edukiaren arabera kalkulatu dira.

Erabiltzaile bakoitzaren eskura jarritako errefusarentzako 360 litroko edukiontzi bakoitzeko 896,5 €/urte

Erabiltzaile bakoitzaren eskura jarritako errefusarentzako 1.000 litroko edukiontzi bakoitzeko: 1210 €/urte

Errefusa-edukiontzirik ez duten erabiltzaileak baina Sasieta Mankomunitateak beste bilketa-zerbitzu batzuk ematen dizkienak. Gutxieneko tarifa 896,5 €/urte

Enpresa jantokia duten industria handiak, alboko karga-ekipoen bidez artatuak: 16.426,30 €/año

4.- BESTE JARDUERA EKONOMIKO BATZUK

a) Garaje kolektiboa 568,7 €/año

d) Abeltzain esplotazioei (ikuiluak) 170,9 €/año

TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK

Urte bakoitzeko urtarilaren 1ean sortuko da tasa eta urtean bitan kobratuko da. Ezarraldiaren lehen egunean dagoen egoera hartuko da kontutan kobraketarako. Nolanahi ere nahiz eta eraikuntza berriko etxebizitzetan nola eraispentetan, kuota hilabeteka zatikatuko da eta horretarako sortzapen data bezala lehen okupaziorako eta eraispenerako lizentzia ematearen data hartuko da.

Tasa ordaindu behar duenaren titularitate-aldaketak edota jardueren alta edo bajek, ekainaren 30era arte gertatzen badira, 2. seihilekoari dagokion ordainagirian izango dituzte ondorioak. Data horretatik aurrerakoek hurrengo ekitalditik aurrera izango dituzte ondorioak.

Ordaintzeko obligazioa ezinbestekoa izango da herriko etxebizitza, denda edo industri establezimenduen jabe direnentzat, ez erabiltzeak ezingo duelarik horren aurkako eraginik izan.

Herriko etxebizitzatako jabe guztiek, Udalak zaborra biltzeko eskubideak ordainerazteko dagokion agiria ematen ez dienean, Erroldan sartuak izan daitezen Udaletxeari jakinerazteko obligazioa dute. etxebizitza berrien okupatzaileek etxea hartzen dutenetik hilabete baten barru egin behar dute eskaera hori.

Lokal batean 2 iharduera edo gehiago gauzatzen direnean, kopuru haundienekoa tarifa aplikatuko da.

Jabetza horizontalaren konfigurazioa gauzatuta ez duten etxebizitza, merkataritza-lokal edota garajeen eraikinen kasuan ere, horietako bakoitzeko tasa sortuko da.

"Merkataritzako zaborrengatiko" edo "industriako zaborrengatiko" tasaren kontzeptua zergadunak Sasietako Mankomunitatetik jasotzen duen zerbitzu motaren arabera izango da, hori egiaztatuko duen txostena izan ondoren

Beasain, 2024ko urria